

2020-2023 PLAN ESTRATEGIKOA



Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Bizkaia

Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala



Asociación de Ingenieros Industriales de Bizkaia

Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkarte




Egitekoa

- Industria Ingeniarien lanbidea zaindu eta hobetzea, herrialdearen garapen ekonomiko eta sozialean laguntzeko asmoz; betiere, ingurumena errespetatuz.
- Profesionalen arteko harremana bermatzea, ezagutzak eta esperientziak partekatu ahal izateko.
- Garapen profesionala, kultura eta aisialdia sustatzeko jarduerak antolatzea.

Ikuspegia

- Ingeniaritza arloko langileen topagunea:
 - Ezagutzak, esperientziak eta proiektuak partekatzeko.
 - Lanbidearen prestigioa bilatuz.
- Gizartearen ongizatearen aldeko lanagatik errekonozimendua jasotzea.
- Erakunde propio eta konprometituaren inguruko erreferentzia.





Colegio Oficial de
Ingenieros Industriales
de Bizkaia

Bizkaiko
Industri Ingeniarien
Elkargo Ofiziala



Asociación de
Ingenieros Industriales
de Bizkaia

Bizkaiko
Industri Ingeniarien
Elkartea

Balioak

- Deontologia
- Profesionaltasuna eta zorroztasun teknikoa
- Integrazioa eta lankidetzeta
- Gizarte erantzukizuna eta iraunkortasuna
- Prestigio eta kalitate irudia
- Gardentasuna



Kultur printzipioak

- Adin eta jatorri guztietako elkargokide eta bazkideak, leialak, lan-bizitzan zehar eta gerora ere bidalguntza jasoko dutenak. Era berean, batxilergo eta unibertsitate garaitik ingeniaritzara bideratu behar dira gazteak, eta elkargokide berriak erakarri. Oinarria: zerbitzu katalogo erakargarria eta arlo guztietako informazioa, etorkizunaren ziurgabetasunari aurre egiteko.
- Langileei dagokienez, Elkargo eta Elkartearen interesak defendatzeaz gain, aukera berdintasunaren printzipioa oinarri hartuta, funtzio anitzak bete eta etengabeko prestakuntza jasotzeko prest egon behar dute. Hori dela eta, lanaren betetze-maila neurtzeko sistema bat ezarri behar da, irizpide objektibo eta zenbakarrien bidez.
- Hornitzaileak elkargokide eta bazkideek eskatzen duten zerbitzu-mailaren araberakoak izan beharko dira, berrikuntza proiektuetan parte hartzen duten eta prestakuntza ematen dutenak bereziki kontuan hartuz.
- Erakunde akademiko eta elkargoak, publiko eta lokalak, funtsezko elementuak dira lanbidea defendatu, enplegua bideratu eta elkargokide eta bazkideek eskatzen dituzten zerbitzuak osatzeko.
- Gizarte osoaren onurarako, gure ikusgarritasuna hobetu behar dugu, eta profesionaltasun, gardentasun eta kalitatearen erreferentea izan, berrikuntza, ikaskuntza eta enplegarritasuna sustatzen ditugun bitartean.

Funtsezko aldagaiak

- Gure elkargokide eta bazkideek eta gainerako eragileek gugan baloratzen dituzten ezaugarriak dira bereizten gaituztenak; orokorrean, gure zerbitzuen berezitasuna eta ematen dugun zerbitzuaren kalitatea da gakoa.
- Gu hautatzeko eta gurekin jarraitzeko arrazoiak identifikatzea funtsezkoa da.
- Oinarrizko aspektu bat gure prozesu eta komunikazio teknologia da; ez da commodity bat, barneratu beharreko zerbait baizik. Sare sozialek, networking sistemak eta gure kolektiboak dituen harreman-gaitasunak ematen dituzten aukera guztiak baliatu behar ditugu, gure jarduera-ildoak modu ordenatu eta egokian zabaltzeko, betiere, portaera etiko eta estilo eredugarria praktikatuz.
- Eremu konplexuak ondo kudeatzeko eta egokitzeko esperientzia badugu. Eremu horiek etengabe aldatuz doaz, beraz, Gizartearen eraldaketa digitalean egiteko garrantzitsua dugu.

Erronkak

- Hauek dira gure hiru erronka nagusiak:
 - Lanbidea defendatu eta gure elkargokideei zerbitzu berrien inguruko prestakuntza eta orientazioa ematea.
 - Gure gizarte zibilean jokatu behar dugun rola.
 - Gure elkargokide multzoa sendotu eta handitzea.
- Erronka hauei erantzuteko, beharrezkoa da honakoa:
 - Ideia horien arabera Gobernu Batzorde bat eratu eta kohesionatzea, sormena eta harreman-gaitasuna bermatzeko.
 - Batzordeko kideen eta tituludunen potentzial handia baliatzea eta erabakiguneetan parte-hartzea sustatzea.
 - Emakumeen presentzia handitu eta elkargokide taldea eta gobernu organoak gaztetzea.
 - Erakundeak talde profesional berritzaile, motibatu eta eraginkorra eratzea, adostutako politika eta estrategiak errentagarri eta egingarri bihurtzeko.

Aldaketaren kudeaketa

- Modu ireki, parte-hartzaile eta profesionalean kudeatu behar ditugu kanpo zein barne aldaketak:
 - Industrian, proiektu anitzetan eta industriaren eraldaketan daukagun esperientzia baliatuz, enpresa profesional garrantzitsuekiko kontaktua sendotuz eta beharrezko diren gaitasun eta trebetasunak geureganatuz.
 - Komunikazioan, sare sozialak erabiliz eta inguru berrietara egokituz.
 - Ikasketa plan berrietan, eskatuko zaizkigun profil berrietara egokituz eta master berrien diseinuan parte hartuz.
 - Araudi esparruan, Europako zuzentarauen eta lurralde eremuen arabera.
 - Elkargoaren beraren eta Gobernu Organoen portaera pertsonaletan, antolakuntza eta kultur joeretan.
- Betiere, gure jardueraren ardatz nagusien arabera:
 - **Nortasuna:** Gure kolektiboak industria gaietan duen egitekoa sustatuz.
 - **Parte-hartzea:** Gure elkargokideak fidelizatuz eta berriak geureganatuz.
 - **Gobernua:** Beharrezko tresna da, eraginkorra, gure kideei kalitatezko zerbitzua ematen die, Elkargoa eta Elkartearen arteko harremanak eta egitura sistemak garatuz, eta Fundazioa sortzeko aukera aurreikusiz.
 - **Erakundea:** Inguruarekiko sinergiak hobetuz eta Euskal Kontseilu, Kontseilu Nagusi eta FAIIE Kontseilu Nagusiarekiko harremanak sustatuz.

Ildo estrategikoak

- Nortasun eguneratua lantzea harreman instituzionalei, teknologiari, Estatutu, Komunikazio eta Kudeaketa estiloei dagokienez (*Elkargoa eta Elkartea*).
- Ekintza profesionala (Egokitzapen teknologikoa eta Zerbitzuak) (*Elkargoa*).
- Ekintza sozial eta kulturala (*Elkartea*).

Lan egiteko modua: Batzordeak eta Proiektuak

- Planaren garapena Batzorde eta Proiektuen arabera egingo da.
- Batzordeez ari garenean, orokorrean, Gobernu Batzordearekin erlazionatutako pertsona talde txiki batez ari gara, baina ez hori bakarrik. Aldian-aldean batzartzen dira eta lan egiten dute, Administrazioarekiko eta beste Elkargokide batzuekiko harremanak erraztu eta irizpideak emateko, denbora-epe zehatzik gabe. Haien proposamenak lan-ildoan araberakoak izango dira.
- Proiektuez ari garenean, denbora helmuga zehatz bat eta helburu jakin bat duten egitasmoez ari gara. Lan-ildoan arabera eta baliabide propioekin edo espezialistekin burutu beharreko ekimenak dira.